



Beasaino Udala

ESP. KODEA. 2019BOCU0004	
EXPEDIENTEA	
TITULARRA	BEASAINO UDALA KULTURA SAILA
TOKIA	

Beasainen, bi mila eta hemeretziro irailaren 6an

BILDURIK

Alde batetik, BEASAINO UDALA Aitor Aldasoro Iturbe jaunak ordezkatuta, Beasaino Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, ELKAR ARGITALETXEA, Jose Maria Sors Bagües Zuzendari jaunak, NA zenbakia 72.418.728-P duenak, ordezkatua.

Eta CAF, Lan Harremanetako Arduraduna den Jon de la Puente Vitini jaunak, NA zenbakia 44557917V duenak, ordezkatuta.

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES

Llan Buruzagüeta / Jefatura RR.LL

Intta./Fdo. JON DE LA PUENTE

AURREKARIAK

1. 1994 urtean sortu zuen Beasaino Udalak, Beasaino CAF enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, IGARTZA LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA idazle berrientzat. Horrela jasotzen da Beasaino Udalak eta ELKAR argitaletxeak 1994ko maiatzaren 23an sinatutako hitzarmenean. Baina, CAF enpresarekin ez zen ezer sinatu
2. LITERATUR BEKA honek 6.000,00 euroko diru-laguntza izan du hasieratik CAF enpresak jarriak. 2013ko otsailaren 20an, ordea, CAF enpresak idatzi bat aurkeztu zion Beasaino alkateari urte horretatik aurrera bere diru ekarpena 6.000,00 eurokoa izan beharrean 4.000,00 eurokoa izango zela jakinarazteko.
3. Ondorioz, data horretatik aurrera saria osatzeko falta ziren 2.000,00 euroak Elkar argitaletxeak eta Beasaino Udalak erdi bana ordaintzea erabaki zen.
4. Bestalde, epaimahaiak hala erabaki duenean, 3000,00€ko akzesit saria ere eman da. Hori dela eta, ELKAR argitaletxeak eta Beasaino Udalak erdi bana ematea adostu zuten.





Beasaingo Udala

Hiru aldeak hitzartzeko duten ahalmenak elkarri aitortu eta horren ondorioz dokumentu hau egiten da ondorengo

KLAUSULEKIN

Lehenik. Hitzarmen honen helburua IGARTZA LITERATURA- SORKUNTZAKO BEKari dagokionez, ELKAR argitaletxearen, CAF(Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren eta udalaren arteko harremana eta elkarlana zehaztu eta finkatzea da. Udala sustatzailea izanik eta ELKAR eta CAF enpresa laguntzailea eta babeslea hurrenez hurren.

Bigarren: Hiru aldeen betebeharrak honela arautzen dira:

1.- Beasaingo Udalaren betebeharrak:

- a) Oinarriak onartzea, argitaratzea lehiaketa prozedura erabiliz eta horien zabalkundea egitea.
- b) Udaletxean jasotako proiektuak epaimahaiari helaraztea modu anonimoan.
- c) Epaimahaiak proiektuak baloratu ondoren, sari emate ekitaldia antolatzea.
- d) Beasaingo Udalak jasoko ditu CAFek eta Elkar argitaletxeak jarri beharreko diru kopururak (CAFek 4.000,00 euro eta Elkarrek 1.000,00 euro) eta berak jarritako 1.000,00 euroekin batera saridunari 6.000,00 euro ordainduko dizkio.
- e) Epaimahaiak akzesit saria ematea erabakitzen duenean, irabazle horri 1.500,00 euro ematea.
- f) Aurreko edizioan saritutako liburuaren aurkezpena egitea.
- g) Beasaingo Udalak argitaratutako liburuaren 20 ale emango dizkio CAF enpresari.
- h) Epaimahaiaren kostuaren erdia ordaintzea.

2.- Elkar argitaletxearen betebeharrak:

- a) Epaimahaia eratu eta koordinatuko du eta idazlearekin batera edizioa prestatu eta liburua argitaratuko du. Bere esku egongo da argitalpenaren kostua, kudeaketa eta horren inguruko erabakiak hartzea.
- b) Elkar argitaletxeak egile eskubideak ohiko moduan ordainduko dizkio egileari.



elkar
Elkar Liburu, S.L.
Portuñe, 20013 DONOSTIA
Tel.: 943 310 117 - Fax: 943 310 210
elkar@elkarliburu.com
www.elkarliburu.com



Beasaingo Udala

- c) ELKAR argitaletxeak Beasaingo Udalarari argitaratutako liburuaren 50 ale entregatuko dizkio dohainik. Argitaratutako liburuaren ale gehiago eskuratu nahiko balitu Beasaingo Udalak ordaindu egin beharko ditu baina beherapenarekin lortuko ditu.
- d) ELKAR argitaletxeak saritutako liburuaren argitalpenean, Beasaingo Udalaren eta CAF enpresaren aipamenak leku duin eta ikusgarrian aipatuko ditu, lehena IGARTZA BEKArek antolatzaile eta bigarrena babesle gisa jasoz.
- e) Saritutakoari 6.000,00 euroko saria ordaintzeko 1.000,00 euroko diru sarrera egingo dio Beasaingo udalari.
- f) Epaimahaiak akzesit saria ematea erabakitzen duenean, irabazle horri 1.500,00 euro ematea.
- g) Epaimahaiaren kostuaren erdia ordaintzea.


3.- CAF enpresaren betebeharrak:

- a) IGARTZA BEKArek babesle nagusia den heinean, 4.000,00 euro jarriko ditu urtero horretarako eta Beasaingo Udalarari emango dizkio saritutakoari 6.000,00 euroko saria ordaintzeko.
- b) Sari emate ekitaldian eta liburu aurkezpenean parte hartuko du.


Eta esandako guztiarekin ados egonik, bildutakoek dokumentu hau sinatu dute hirukoizturik, goiburuan aipatutako data eta lekuan.



Aitor ALdasoro Iturbe
Beasaingo Alkatea



Jose Maria Sors Bagües
Elkar argitaletxeko zuzendaria



Jon de la Puente Vitini

CAFeko LHn arduraduna

www.caf.net
CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES S.A.